




















IKT-AK EGOKI ERABILTZEKO ARAUAK

ARAUAK		IKA	IRA	FAM
 <p>Gailu elektronikoak, gureak zein ikastetxearenak, kontuz eta arduraz tratatu behar ditugu, leku seguruetan gorde eta erabiltzen ez ditugunean itzalita utzi. Ikastetxeak ez du bere gain hartuko gailu horien balizko galera, lapurreta ...</p> <p>Debekatuta dago ikastetxean telefono mugikorrek, erloju adimentsuak eta grabazio baliabideak dituen edozein gailu erabiltzea. Irakasleak ikaslea aipatutako aparatu horietako batekin ikusten badu, kendu egingo dio idazkaritzan uzteko eta ikasleari idatzizko ohartarazpena emango dio etxekoei horren berri emateko.</p>	●	●	●	
 <p>Tresna eta baliabide informatikoak irekita geratzen badira, arriskuan jartzen dugu sistemaren segurtasuna, eta datu pertsonalen pribatutasuna babes gabe uzten. Beraz, gailu elektronikoetako saioak itxita edo blokeatuta utziko ditugu, beste inor bidegabe sartzea saihesteko.</p>	●	●		
 <p>Ikastetxeko ekipoak denok erabiltzekoak direnez, ez dugu haien interfazea (pantaila, kurtsoa...) pertsonalizatu behar; edozein modutan, ekipo batetik bestera aldatu baino lehen, zegoen moduan utziko dugu erabili duguna.</p>	●	●		

	<p>Gure informazioa ez dugu gordeko ikastetxeko gailu elektronikoetako <i>Dokumentuak</i> karpetaan, galdu egiten baita ekipoa formateatzean. Norberaren kontuan gordetzea da jarraibide egokia, bakoitzari dagozkion zerbitzariko guneetan –segurtasun-kopiak babesturik daudelako– , ikastetxearen domeinuko <i>drive</i>etan.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	
	<p>Ikastetxeko zereginekin zerikusirik gabeko informazio pertsonala (irudiak, bideoak, legezko dokumentazioa...) Ikastetxeko ordenagailuetan edo zerbitzarian ez gordetzeko konpromisoa hartzen dugu.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	
	<p>Ez dugu saiatu behar, administratzailearen baimenik gabe, softwarerik instalatzen, ez ikastetxeko ekipoetan, ezta pertsonaletan ere, ikastetxearen domeinuaren pean dauden bitartean.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	<p>●</p>
	<p>Dokumentazioa prozedura elektronikoen bidez besteei helarazteko eta partekatzeko, ikasleek zentroaren domeinuko kontuak baino ez dituzte erabiliko. Gurasoek, berriz, ikastetxeari jakinarazi dioten beren kontu pertsonala erabiliko dute.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	<p>●</p>

	<p>Ikasleen kontuen pasahitzak ez dira aldatu behar. Bai gurasoek, bai tutoreek, jakin behar dute zein den pasahitza, kontu horien segimendua behar bezala egiteko.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	<p>●</p>
	<p>Ikasleek ez dute, inola ere, beren jabetzakoa ez den gailurik trukatu edo erabiliko. Era berean, ez da beste ikaskide batzuen pasahitzik edo posta-konturik trukatu. Ikastetxeak sortutako posta-kontua irakaskuntza-lanetarako soilik erabiliko da.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	<p>●</p>
	<p>Ikasle bakoitzak berak aukeratutako pasahitz pribatua du. Nahiz eta batzuetan beste ikasle batzuk teknologietan gu baino adituagoak direla iruditzen zaigun, inola ere ez zaie pasahitza eman behar, ez dute-eta behar bezain arduratsuak izateko adina. Kontua pribatua izatea ikasle bakoitzaren eta familien ardura izango da.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	<p>●</p>
	<p>Domeinuko kontuak ikaste-irakaste prozesuan erabiltzeko dira. Ezin dira erabili ikasleek duten adina baino altuagoa eskatzen duten aplikazioetan (Facebook, Instagram ...) izena emateko, ez da-eta bidezkoa. Hala gertatuz gero, araua bete ez duen kontua blokeatzera behartuta dago ikastetxea.</p>	<p>●</p>		

	<p>Ikastetxeak onartu ez dituen joko- edo aisialdi-webguneetan ere ezin da izena eman.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	
	<p>Ikasleek irakasleak baimendutako eskola-eginkizunetarako solik erabiliko dituzte beraien gailu elektronikoak. Beste helburu batzuekin erabiliz gero, araudi hau errespetatu behar da ikastetxearen domeinuan dagoen bitartean.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	
	<p>Irakasleek ikasleak ordenagailuaren bidez egiten ari diren jarduerak eta horien edukia gainbegiratu, egiaztatu eta zuzendu ahal izango dituzte. Gainera, ziurtatu beharko dute erabilera egokia izaten ari dela eta hezkuntza-mota edo -jarduera horretarako beharrezkoak diren aplikazioak baino ez daudela irekita.</p>		<p>●</p>	
	<p>Ezinbestean errespetatuko ditugu erabiltzen dugun materialaren jabetza intelektuala eta egile-eskubideak, baita ikastetxean bertan sortutako materialena ere.</p>	<p>●</p>	<p>●</p>	

	<p>Irudia eta bideoak erabiltzen baditugu, seguru egon behar dugu ez dugula urratzen ikastetxearen Norberaren Irudiaren Eskubideari buruzko araudia.</p>	●	●	●
	<p>Irakasleen, familien eta ikasleen artean Internet bidezko harremanak izateko, posta elektronikoa edo onartutako komunikazio-kanalak (Classroom, dokumentu- txata ...) erabiliko ditugu; betiere, oinarrizko kortesia-arauak beteta.</p>	●	●	●
	<p>Bizikidetzara-arauek komunikazio digitalean ere zaindu behar ditugu. Beraz, errespetua gordeko dugu komunikazioetan, bai eta saihestuko eta salatuko ere jazarpenak, irainak edo izen ona zikintzea ekar ditzakeen edozein erabilera. Arau hau hausteak ondorio kaltegarriak ekarriko balitu, baliteke arazoan nahastuta egon direnen kontuak ikertu behar izatea, eta, beraz, kontuetan gordetako informazioan sartzea goitik behera miazteko.</p>	●	●	●
	<p>Domeinuaren egitura digitala ezin da komunikazio-helburu subjektiboekin erabili: ezin dira ideiak aldarrikatu, ezin da doktrinatu, ezin dira argitaratu iritziak eta kexak edo erreklamazioak eta ezin da propaganda zabaldu.</p>	●	●	●